



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Euskara eta Literatura II

Lengua Vasca y Literatura II

EAU 2023 USE

www.ehu.eus





Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO PROBAK

2023ko OHIKOA

EUSKARA ETA LITERATURA II

PRUEBAS DE ACCESO A LA UNIVERSIDAD

ORDINARIA 2023

LENGUA VASCA Y LITERATURA II

Ez ahaztu azterketako orrialde guztietan kodea jartzea.

- Lehenbizi TESTU bat duzu.
- Testu bakar horren gainean eraikiak daude hiru atal (A, B, C).
 - A: Irakurmena
 - Ulermenari buruzko galderak (2 puntu)
 - Gaia eta ideiak/laburpena (2 puntu)
 - B: Hizkuntzaren eta literaturaren inguruan (1 puntu)
 - C: Idazlana (5 puntu)
- **Atal bakoitzean** dauden bi aukeretako bakar bati erantzun behar diozu.
- **Jarraibideetan adierazitakoei baino galdera gehiagori erantzunez gero, hau da, galdera batean bi aukerei erantzun bazaie, erantzunak ordenari jarraituta zuzenduko dira, erantzun den lehenbizikoa bakarrik zuzenduko da.**



**EUSKARA ETA
LITERATURA II**

**LENGUA VASCA Y
LITERATURA II**

Tamaina

Bada gauza guztietan neurri bat. Tamaina bat. Hori gazteak ez daki, eta umeak ere ez. Helduek eta zaharrek ba omen dakite, nahiz maiztxo atzentzen zaien.

Bada tamaina bat jan-edanean; bada tamaina bat bakardadeari emandako denboran eta orobat lagunarteari emandakoan; pertsona edo lagun hurko bakoitzarekiko egonak edo ibiliak tamaina bat du, zeinaren azpitik hurko hori desiragarri biziagia bihurtzen den, eta gainetik, aldiz, aspergarri hutsa; badu tamaina bat kalezuloko ibiliak, eta etxezuloko egonak ere badu berea; bada hein bat erudizio edo informaziorako, eta bada hein bat ezjakintasunerako; tamaina bat dute edozelako atxikimenduek eta beste bat hoztasun edo moztasun loturazkoek. Zertarako ez dago tamaina edo neurri bat?

Behin kimikari bat mintzatu zitzaidan zianuroaren zaporeaz. Probatua zeukala esan zidan, eta neurri, tamaina edo kopuru batetik behera ez zuela deus egiten. Beste egun batean ohartu nintzen itotzea uraren gaindosia besterik ez dela, eta egun horretan bertan irakurri nuen ur bila zebiltzala Marten, zeren uste baitute hori dela han “bizia” egotearen seinale garbiena. Beraz, zianuroaren tamaina heriotzaren eta deusezaren artean legoke, eta urarena, berriz, biziaren baliokide izatearen eta heriotzaren –hiltze-moduen– aurpegi ezagunenetakoa izatearen artean. Atera nuen ondorioa on-gaitzetatik haratago edo honatago kokatzen zen: ez dago gauza onik edo txarrik, dena tamaina-kontua denez gero.

Heldu edo zahar askotxori entzungo diegu horixe (“dena tamaina-kontua da”) dela bizitzak eman dion irakaspén garbiena eta, zenbaitentzat, bakarra, edo garbi bakarra. Eta orobat entzungo diegu dena tamaina-kontua dela jakitea oso garrantzizkoa dela.

Helduok, zaharrok (neuretzat ere ari naiz): ondo pentsatzen jarrita eta ibilita, niri orain iruditzen zaidana da hori oso garrantzizkoa izan daitekeela, baina agian ez dela oso *funtsezkoa*.

Tamaina edo neurria zer da, azken buruan? Hauxe: “gehiegia gehiegi da eta gutxiegi gutxiegi da.” Ederki. Eta zenbaterainoko funtsa du horrek? Hainbeste erakusten al digu?

Dena tamaina kontua omen da. Ez da ba *estilo* kontua izango?

Iñaki Segurola (*Ganorexia*)

Moldatua



**EUSKARA ETA
LITERATURA II**

**LENGUA VASCA Y
LITERATURA II**

A ATALA: IRAKURMENA (4 PUNTU)

▪ ULERMENARI BURUZKO GALDERAK (2 PUNTU)

Bi aukera hauetako bati erantzun behar diozu (A1.1 edo A1.2)

A.1.1. ULERMENA (2 puntu)

Aukeratu erantzun egokiena. Aski da erantzun-orrian zenbakia eta letra jartzea:
1.a, 2.d,...

1. Testuak dioenaren arabera,
 - a. ... gazteek uste dute ez dagoela tamaina jakinik ezertarako.
 - b. ... gazteek eta zaharrek desberdin sentitzen dute tamainaren eta neurrien kontua.
 - c. ... gazteek ez dakite gauza guztiek neurria dutenik, nahiz zaharrek maiz gogorarazten dieten.
 - d. ... zaharrek uste dute badagoela tamaina bat gauza guztietarako, nahiz gazteei atzentzen zaien.
2. Testuak dioenaren arabera, baieztapen hauetatik zein da GEZURRA?
 - a. Hurkoarekin asko ibiltzen bagara, aspergarri gerta dakiguke.
 - b. Hurkoarekin gutxi ibiltzen bagara, gerta liteke hura desiratzea.
 - c. Ez da ona ez gehiegi jakitea, ez eta gutxiegi jakitea ere.
 - d. Ez dago tamaina edo neurri jakinik ezertarako.
3. Testuak dioenaren arabera,
 - a. ... uraren neurria biziaren baliokide izan liteke Marten.
 - b. ... zianuroa eta ura, biak izan litezke txarrak neurri batetik gora.
 - c. ... kimikariak probatua zeukan zianuroa, nahiz bazekien neurri batetik gora ez zuela deus egiten.
 - d. ... tamaina batetik gorako neurriak eta tamainak txarrak dira, eta handik beherakoak onak.
4. Idazlearen ustez,
 - a. ... tamaina-kontua funtsezkoa eta garrantzizkoa da.
 - b. ... gazteentzako irakaspen ona da tamaina-kontuarena.
 - c. ... tamaina-kontua ez da funtsezkoa ez eta garrantzizkoa ere.
 - d. ... bizitzak irakatsi die adinekoei gauza guztiei tamaina hartzen.
5. Idazlearen ustez,
 - a. ... gehiegitan esaten da dena tamaina-kontua dela.
 - b. ... gutxiegitan esaten da dena tamaina-kontua dela.
 - c. ... ez da funtsezkoa dena tamaina-kontua dela jakitea.
 - d. ... ez da garrantzitsua dena tamaina-kontua dela jakitea.



**EUSKARA ETA
LITERATURA II**

**LENGUA VASCA Y
LITERATURA II**

A.1.2. ULERMENA (2 puntu)

Erantzun, **zeure hitzak erabiliz**, galdera hauei:

1. Zer desberdintasun dago gazteen eta helduen artean tamainaren kontuan?
2. Zertarako iradokitzen du idazleak ez dagoela tamaina edo neurririk?
3. Zeren bila dabilta Marten, eta zergatik?
4. Zer dio idazleak zianuroaren neurriaz?
5. Zer iradokitzen du idazleak tamainaren kontuaz testuaren ondorioetan?

GAIA ETA IDEIAK/LABURPENA (2 PUNTU)

Bi aukera hauetako bati erantzun behar diozu (A.2.1 edo A.2.2)

A.2.1. GAIA ETA IDEIAK

GAIA: Aukeratu gai egokiena honako aukera hauen artean (0,5 puntu):

- a) Bizitza honetan gauzak neurritz ez egitearen ajeak.
- b) Bizitza honetan gauzak neurritz egitearen abantailak.
- c) Gazteen eta zaharren arteko desberdintasunak neurri-kontuetan.
- d) Bizitzaren arlo guztietan gauzak neurritz egitearen garrantzia.

IDEIAK (1,5 puntu)

Azaldu, **era eskematikoan**, testuan agertzen diren ideia nagusiak eta bigarren mailakoak.

A.2.2. GAIA ETA LABURPENA (2 puntu)

GAIA: Aukeratu gai egokiena honako aukera hauen artean (0,5 puntu):

- a) Bizitza honetan gauzak neurritz ez egitearen ajeak.
- b) Bizitza honetan gauzak neurritz egitearen alde onak.
- c) Gazteen eta zaharren arteko desberdintasunak neurri-kontuetan.
- d) Bizitzaren arlo guztietan gauzak neurritz egitearen garrantzia.

LABURPENA (1,5 puntu)

Egin ezazu, **labur eta testu josian**, *Tamaina* izeneko testuaren laburpena (gehienez **60 hitz**)



**EUSKARA ETA
LITERATURA II**

**LENGUA VASCA Y
LITERATURA II**

**B ATALA - HIZKUNTZAREN ETA LITERATURAREN INGURUAN
(1 puntu)**

Bi aukera hauetako bati erantzun behar diozu (B.1 edo B.2)

B.1. Aurkitu itzazu testuan definizio hauei dagozkien hitzak:

- Zerbaiten edo norbaiten oroitzapena galdu, ahaztu.
- Hurbila, hurbilekoa.
- Maite edo gogoko den zerbaiten edo norbaiten alderako lotura.
- Sendagai edo droga baten neurri handiegia, heriotza ekar dezakeena.
- Era berean, berebat.

B.2. Azaldu ezazu, **zeure hitzekin**, honako hitz-kate hauen esanahia:

- ... bada tamaina bat bakardadeari emandako denboran eta orobat lagunarteari emandakoan
- ... badu tamaina bat kalezuloko ibiliak, eta etxezuloko egonak ere badu berea
- ... zianuroaren tamaina heriotzaren eta deusezaren artean legoke
- ... atera nuen ondorioa on-gaitzetatik haratago edo honatago kokatzen zen
- ... zenbaterainoko funtsa du horrek?

C ATALA - IDAZLANA (gutxienez 200 hitz) (5 puntu)

Bi aukera hauetako bati erantzun behar diozu (C.1 edo C.2)

C.1. ESKUTITZA

Testuaren arabera, ez omen dago gauza onik edo txarrik, neurrian omen dago gakoa. Hau irakurrita, zure etxe azpian asteburuero gertatzen den egoera bat etorri zaizu burura. Tabernaz inguraturik bizi zara, eta, asteburuetan bereziki, ezin duzu lorik egin, jasangaitza baita parrandan dabiltzanek ateratzen duten zarata. Kale-giroan ibiltzeak eta auzokoez atsedenerako duten eskubideak, biek, **tamaina** bat izan beharko lukete, zure ustez. Idatzi zure herriko alkateari gutun bat, zure arazoa azalduz eta konponbiderako neurri batzuk proposatuz.

C.2. IRITZI-ARTIKULUA

Bizi zaren herria sagardotegiz inguraturik dago. Martxo-apiriletan herriko eta kanpoko jende ugari biltzen da sagardotegiotan, eta ondoren, zure herrian jarraitzen dute festa-giroan. Sagardozale hauetako gutxi batzuek ez diote **tamainarik** hartzen, eta, ondo pasatu beharrean, herriarekin *pasatu* egiten dira (basoak hautsi, zarata handia atera, pixa edonon egin...). Idatzi iritzi-artikulu bat zure herriko aldizkarian argitaratzeko, gai honen inguruan zure iritzia emanaz.



ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN

EUSKARA ETA LITERATURA II / LENGUA VASCA Y LITERATURA II

A ATALA: IRAKURMENA (4 puntu guztira)

Bi ariketa mota daude A atalean, eta ariketa bakoitzaren barruan, beste bi aukera:

- **ULERMENA (2 puntu)** eta
- **GAIA ETA IDEIAK / GAIA ETA LABURPENA (2 puntu).**

ULERMENA:

Ariketa honetan helburua idatzizko testuen ulermena neurtzea da. Beraz, ariketa itxia bada, hau da, aukera anitzeko galderak edota egia/gezurra erakoak, kasurako, erantzun zuzenak emango zaizkio zuzentzaileari, zuzendu ahal izateko. Erantzun okerrengatik ez da zigorrik izango.

Galde-erantzun erako ariketetan, ikasleak bere hitzekin eman behar du erantzuna (hala nabarmenduta dator galderan), eta ez testuko hitzekin: ematen den erantzuna testuaren beraren kopiatze hutsa denean, galdetzen denari erreparatu gabe, zigortu egingo da.

Zuzentasunari dagokionez, ikasleak tarteka sistematikoak ez diren akats ortografiko batzuk edo eta gaizki-ulertuak sortzen ez dituzten akats gramatikalak egitea ez da zigortuko.

GAIA ETA IDEIAK / GAIA ETA LABURPENA

Gaia: lau edo bost esaldi aurkeztuko zaizkio ikasleari, haien artean aukeratu dezan bere iritziz testuko gaia laburbiltzen duena. (**Guztira 0,5**).

Ideiak: ideia nagusiak zein diren esateko orduan, berriz, testuan agertzen diren jarrera, ikuspegi edo argudio-ildo garrantzitsuenak antzemateko gai den ala ez neurtuko da. Bigarren mailako ideiak ere jasoko ditu ikasleak. Ideiok ez dira bata besteari lotu behar, eta **eskema baten modura** aurkeztuko dira. Egiturari dagokionez, ontzat emango da bai izen-sintagma egitura erabiltzea (aditz nagusirik gabe: ...*alabaren etorrera*) eta bai perpaus-egitura erabiltzea ere (aditz nagusia erabiliz: ...*alaba etorri da*).

Laburpena: laburpenean, ikasleak sintetizatze duen gaitasuna neurtuko da. Ikasleak sortzen duen testuak "josia" behar du. Testuaren laburpena egitean estilo zuzena eta zehar estiloa, biak onartuko dira. Beraz, ez da txartzat emango "autoreak dio" edo "idazleak dio" eta horien antzeko egiturak erabiltzea. Gehienez 60 hitzeko laburpena behar du izan. Zigortu egingo dira neurri horretakoak baino luzeagoak diren laburpenak.

Hitz batean, forma kontuez haratago, testua ulertu duten antzematea da helburua. Horrexegatik, *Laburpenean* eta *Ideiak* adieraztean ere, zuzentasunari eta ortografiari dagokienez, ez da zigortuko ikasleak tarteka sistematikoak ez diren akatsak edo gaizki-ulertuak sortzeko modukoak ez diren akatsak egitea.

(1,5 guztira).



ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN

B ATALA: HIZKUNTZAREN ETA LITERATURAREN INGURUAN (1 puntu guztira)

Zuzenak diren erantzunak bakarrik hartuko dira kontuan.

Testuan hitzak aurkitzeko ariketan, eskatzen diren hitzen zerrenda emango zaie zuzentzaileei. Ikasleek nahi duten bezala emango dituzte hitzak: testuan agertzen diren bezala (*askatasunaren, gizentzeko...*) nahiz atzizkirik gabe, mugatzaile hutsarekin (*askatasuna*) edo, aditzen kasuan, haien partizipio forman (*gizendu*).

Hitz-kateen esanahia emateko ariketan, ikasleek beren hitzak erabiliz emango dute erantzuna. Zigoritu egingo da testuko hitzen kopiatze hutsa egiten badute.

Atal honetan ere, aurreko ataletan bezala, ortografia edo gramatika hutsei dagokienez irizpide berberak balio dute, hau da, ez da zigortuko, zuzentasunari dagokionez, ikasleak tarteka sistematikoak ez diren akats ortografiko batzuk edo gaizki-ulerturik sortzen ez duten akats gramatikalak egitea.

C ATALA: IDAZLANA (5 puntu guztira)

Idazlana egiteko, bi aukera izango ditu ikasleak: eskutitza (formala edo informala izan daiteke) edo iritzi-artikulua. Gutxienez 200 hitz idatzi beharko ditu idazlanean.

Idazlanaren kalifikaziorako, kontuan hartuko da ea eskatutakoari zuzen eta egoki erantzun zaion, beharrezko informazioa aukeratu duen, informazioa era logikoan ordenatu eta lotu duen eta hizkuntza-baliabide aberatsak, askotarikoak, zehatzak eta zuzenak erabili dituen.

Idazlana garatzeko gidoitxo bat ematen zaienean, gogoan izan behar da gidoiko puntuak lagungarri izan nahi dutela, ikaslea adarretatik ibil ez dadin eta gaiari hel diezaion. Nolanahi ere, ez da nahitaezkoa ikasleak gidoiko puntu guztiak garatzea.

Gutun formaletan, ikasleek gutun formalen osagaiak erabiliko dituzte: nori zuzentzen dion gutuna, agurra, data eta sinadura (asmatutako izen-deiturak). Gutun informaletan, nahikoa litzateke agurra, data eta sinadura (fikziozkoa) emanda.

Iritzi-artikuluetan, izenburua eta egilearen izen-deiturak (fikziozkoak) eman beharko ditu ikasleak, aldizkari/egunkari batean argitaratzeko moduan.

Gainditu ahal izateko, idazlana eskatutakoari lotzen zaiola bermatuko da.

Gutxieneko hitz-kopuruaz: eskatutako hitz-kopuruaren %25 baino gehiago falta duten idazlanei 2,5 puntu kenduko zaizkie. Hitz-kopuruaren gutxienekoa bete ez arren eskatutakoaren % 75era iritsi diren idazlanaren puntuazio orokorrean kenketa egingo da, ondoren zehazten denaren arabera:

Gutxieneko hitz-kopuruaz: 200 hitz				
Idatzitako hitz-kopuruaz	186-199	172-185	150-171	≤ 150
Puntuazio-kenketa	-0,5	-1	-1,5	2,5



ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN

IDAZLANA ZUZENTZEKO ERABILIKO DIREN IRIZPIDEAK ETA ADIBIDE BATZUK

Adibide pare bat ematen dira maila bakoitzeko: adibide bat tarte bakoitzeko nota altuenetik gertu dagoena; beste adibidea, tarteko nota baxuenetik gertuago dagoena

4-5 puntu: (8-10)

- ✓ Testua, eskaturikoari lotzen zaio eta ondo antolaturik dago.
- ✓ Erabiltzen diren ideiak eta argudioak ongi loturik eta garaturik daude.
- ✓ Aukeratu den edukia esanguratsua da gaiaren garapenerako.
- ✓ Erregistro egokia erabiltzen da eta lokailu, lexiko eta egitura sintaktiko aberatsak erabiltzen ditu.
- ✓ Ortografia eta puntuazioa zuzenak dira.

“XV. mendean Guttenberg-ek inprenta asmatzeak mesede itzela egin zion garaiko kulturari. Garai hartako idazleak ez ziren negarrez hasi haien lanak mundutik barreiatzean; ordea, izugarri poztu ziren haien ospea eta ohorea handituko baitziren. SGAE handik egotekotan Inkisidoreen antzera arituko zen inprenta ilegalen bila, kononen bat kobratzeko edo!.

Internetek kultura goitik behera aldatu du. Lehen soilik idazleek idazten zuten, aktoreek filmak egin, argazkilariek argazkiak egin... Gaur egun jarduera horiek demokratizatu egin dira. Blogger, Youtube, Flickr... bezalako webguneei esker edonor bilakatu daiteke artista edonoiz, horretarako trebezia izanik, eta, oraindik hobea dena, munduko edonork ikusi eta baloratu ahal du nahi izanez gero. Artista bat baino gehiagok jadanik Interneten ikusiak eta kontratatuak izan dira, ospea lortuz.

Kulturaren bultzatzaile hauek dohain egiten dute lan. Ez dute nahi dirutzarik, soilik kulturaz gozatzea eta besteak gozaraztea. Ez da hori SGAE-ren ikuspuntua. Haiei emule-eren bidez kultura hedatzea bost axola. Haiek helburua dirua bereganatzea da, haien patrikak aski betetzea.

SGAE guztiz oker dabil planteamendu hori defendatzean. Beharbada disken salmentatik datorren kapitala, baina abeslarien ospea? Esponentzialki hazten da Interneteko mandoari esker. Ospea eta kulturarekiko axolagabekeria aski erakutsi dute, ondorioz haien hizkuntzara itzuliko dut baieztapen hau, euroetara: Abeslari bat jende gehiagok ezagututa eta benetan ona baldin bada, zenbat dirutza lortuko da kontzertu, telebista, emanaldi edota horrelako jardueran bidez? Arazoa izan daiteke beharbada hain onak ez izatea eta horretaz gu konturatzea nahi ez izatea...

Beraz, SGAE-ko lagunok, ez bota ‘so’-rik mandotxoari hark bultzatuko baitu kultura eta artista onak eta diruzaleak bereiziko baititu”

“Kaixo, Natalia

Zelan doa bizitza? Asteak dira hitz egiten ez dugula, potxola! Azterketak gora eta azterketak behera. Baina, beno, laster bukatuko da dena! Bai, badakit oso arraroa dela nik ordenagailua hain goiz hartzea. Berri txarrak ditut. Oso berri txarrak, tamalez.

Aitite gaixorik zebilen, badakizu. Auto istripua izan zuenetik ez du burua altxatu, gizajoa! Hori lehenengo, gero amamarena... Nekez jarraitzen zion egunerokoari, goizero altxatu beharri, familia eta lagunak irribarre eta ‘ondo nagoela, motel!’ batez lasaitzeari. Eta gainera artritisiari eta adineko guztien gaitzei aurre egin behar. Gizon indartsua da aitite.



ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN

Baina, antza danez, ez guk uste bezain indartsu. Dirudienez, ezin izan du jarraitu eta burmuinak ondo erantzuteari utzi dio. Sendagilearenean egon gara goizean eta aititeri Alzheimerra diagnostikatu diote. Are gehiago, denborak aurrera joan ahala, okerrera doan gaixotasunaren aldaeretako bat. Aitonak ez du egoeraren larritasuna ulertu, baina amari mundua gainera erori zaio. Negarretan deitu dit telefonoz. Emakume indartsua ere bada ama.

Aditzean genuen aitona ez zegoela erabat ondo, zenbait gauza ahazten zituela eta orduak eta orduak eman ahal zituela lasai eta isilik. Normaltzat hartu genuen, dagoeneko zahartxoak bait, eta guk gauzak ahazten bagenituen, zergatik berak ez? Baina gero izenak nahasten hasi zitzaizkigun, non zegoen edo nora joan behar zuen ahazten... Sendagileak tratamendua bidali dio eta hobe daitekeela esan, baina hori momentu puntualen gauza izan daitekeela ere bai.

Ez dakit zer egin, potxola! Aitonak ahazten banau, zer egingo dut? Badakizu zenbat maite dudan aitona eta ze neurritan elkarrekin gauden. Erantzun goiz, behar zaitut.

*Musu bat,
Rocio*

3-4 puntu: (6-8)

- ✓ Testuak ez du ia akatsik; izatekotan, oso akats txikiak dira, inola ere ez sistematikoak.
- ✓ Erabiltzen diren ideiak eta argudioak bata besteari loturik eta garaturik daude.
- ✓ Egitura sinpleen ondoan aberatsagoak ere erabiltzen ditu (lokailuak, menderagailuak, etab.).
- ✓ Erregistro egokia erabiltzen da.
- ✓ Ortografia ondo menderatzen da, oro har, tarteka akatsen bat edo beste egin arren

Michael Jackson, denok dakigun bezela, mundu honetan izan dugun abeslari eta dantzari trebea izan da. Nahiz eta ez izan gure kultura berdinekoa eta bere abestiak ulergaitzak izan, Michael Jacksonen musika soinuak gaitasun handia du, guztiok dantzan jartzeko bere musikarekin.

Michael Jackson gaur egun, Elvis Presleik duela urte batzuk izan zuen garrantzi berbera du. Biak izan dira historia musikalaren jaun eta jabe, biak sortutako musikak edo soinuak, bizitasuna eman die gure bizitza sumeei, alaitasun puntu bat eskainiz.

Gizon honek, hots Michael Jacksonek nahiz eta bere bizitza pertsonalean huts egite asko izan (droga kontuetan, bortxaketetan...) musika arloan oso kategori handiko gizona izan da eta bere heriotzak, gure oroimenean hutsi ditu bere abestiak, esate baterako: smouth, criminal.

Baina Michael Jackson ez zen soilik bere abestiengaitik egin ospetzu, baizik eta bere dantzatzeke moduengaitik. Beste abeslari guztiekin alderatuta, honek, bizitasuna ematen zion, bere doinueri, ohol gainean edo antzoki batean, izugarrizko erakustaldiak eginez dantzan. Sale asko lortzen zituen. Kultura guztietako saleak zituen eta gaur egun horrelako gutxi daude, kultura desberdineko saleak edo jarraitzaileak dituenak. Eta talde horiek ere gure historiaren parte izatera pasatu dira. Baina gizon honek miloika eta miloika sale izan ditu beti eta bere heriotza oraindik ez bazen gertatuko sale gehiago izango zituen. Baina denok jakin dugu, Michael Jacksonek azaleko arazoak izan dituela eta egindako operazio guztien ondorioz, bere gaisotasuna txarrera joango zela. Nahiz eta



ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN

orain bera ez egon, bere sale guztiok oroimenean izango dugu. Zeren eta bere musika doinuak gure bizitzan hutsune handi bat bete bait du.

“Kaixo aitite maitea,

Atzo amak zure gaixotasunaren berri eman zidan, begiak malkoz bustita zeuzkala. Medikiak alzheimerra zenuela esan zizun eta horrekin beharbada zure bizitzaren ikuspuntua bat batean aldatu egin zen.

Egia da bai, duela gutxi zenbait arazo izaten hasi zarela iloben izenak gogoratzeko edo giltzak non utzi dituzun jakiteko. Baina guk ez genuen ezer ikusten edo ez genuen ezer ikusi nahi.

Txikitatik gurasoek zaindu ezin nindutenean zuregana eramaten ninduten jan, lo edo jolastera. Baita igandero gure bidai pribatuetan inguruneko zonaldeak esagutzera eramaten ninduzun. Bertan zure gaztaroko istoriotxoak, lagunak eta baita zenbait neska lagunengandik hitz egiten zenidan. Zekulako gertaerak ziren. Nik gogokoan ditudana amama esagutu zenuenarena da. Biok hain gazte eta osasuntzu imaginatzen zaituzten etorkizunean zer pasatuko den jakin barik.

Orain egoera antzekoa da baina zerbait gehitu behar diogu, iragana ere ez duzula jakingo. Hala ere, zuk nire izena jakin ezean, hamar aldiz errepikatuko dizut, etxean bainugela non dagoen ez jakitean, haraino eramango zaitut, bizitza osoa emandako hiritik paseatzean kaleak ezagutzen ez badituzu, nik azaldu egingo dizkizut.

Izan ere, zuk behin nirekin egin zenuen, zenekin guztia edo gehiago erakutsi zenidan, bizitzaren dinamika azaldu zenidan eta ahulak lagundu behar direla ere irakutsi zenidan. Hori dela eta, zu ez zaitut alde batera utziko. Badakit gauzak gogorrak izango direla, gaixotasun bat ez da txantxa. Badakit noizbehinka ez duzula ezta ideiarik izango nik nor naizen.

Kontran, arrazoi guzti horiek dira indartsuago egiten nautenak. Nahiz eta nik zure iloba izateari utzi, zuk beti nire aitona izango zara. Haur bat nintzela bizitza erakutsi zidana eta bizitzak berak batzuetan gauza onak eta gauza txarrak ditut. Nire proposamena gaixotasun hau gauza on bat bilakatzea lortzea da.

Horregatik inoiz baino indar handiagoa dut nik zuri behin irakutsi zenidana kontatzeko. Azken finean, gaixotasuna izanda edo ez beti maite egingo zaitut eta pertsona berdina izango zara. Zuk aldatzeagaitik ez gara guk aldatuko, aitzitik, lagundu egingo zaitugu bizitza ezin hobea izan dezazun zuk guri eskaini diguzun bezala.

Besarkada handi bat,

Zure iloba kutuna

2'5-3 puntu:

- ✓ Idatziak zenbait akats ez sistematiko du edukian edo forman. Gabeziek, nolana ere, ez dute oztokatzen testua ulertzea.
- ✓ Egitura sinpleak erabiltzen ditu orokorrean.
- ✓ Argudioak edo ideiak urriak dira edo ez daude guztiz garatuak edo errepikatu egiten dira.
- ✓ Ideien eta egituren arteko koherentzia eta kohesio arazoak baditu ere, hauek ez dute ulergarritasuna oztokatzen.
- ✓ Ortografia eta puntuazioan akats txikiak ditu.



ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN

Idazten hasi egin behar naizen artikulua Michael Jackson-ri zuzendua dijo. Atzo arratsaldean musika eskolan nebilela, irakasle bat etorri zitzaigun esanez Michael Jacksonen heriotzaz, guk ez genuen sinisten orduan etxera iritsi nintzen eta telebista piztu nuenean, neska bat azaltzen zen bere etxearen aurrean esanez Michael Jacksonek hil egin zela. Notizia hori entzun eta gero, nire sabelatik tximeleta batzuk bezela sentitu nituen eta ain urduri nengoen ordenagailua piztu eta informazioa aurkitzen hasi nintzen, zeren artista hau txikitatik entzun dut eta gustokoa nuen.

Michael Jacksonen musika oso dibertigarria da, baina ez bakarrik hori, baizik eta mota guztietako abestik abesten zituen. Abestien letrak oso politak ziren, ulertu ezker. Idazten zituen abestik signifikatu bat zuten beti, bere bizitza kontatzen zuen abesti horietan, eta esan beharra dago bere bizitza oso zaila izan dela.

Artista honen bizitza oso zaila izan da, batez ere bere aitak derrigortzen ziolako bera eta bere anahiei abestea eta dantzatzea, gero diru horrekin bizi ahal izateko pobreak zirelako. Danak batera abesten zuten eta ondo ateratzeko hainbat ensaio egiten zituzten, baina ensaio horietan oso gaizki pasatzen zuten zeren zerbait gaizki atera ezker bere aitak jo egiten zien.

Urte batzuk pasa zirenean, Michael Jacksonek aukeratu zuen azal txurikoa izan nahi zuela eta bere aldetik hasi zenez abesten eta jendea maitatzen zuenez kontzertuk egiten hasi zen, orduan diru horrekin, bere operazioa ordaindu zuen.

Michael Jacksonek oso abeslari ona izan da, eta Estatu Batuetan gehienbat jendea asko maite zuen, hemen ere baina han askoz gehiago. Abesti onak izan arren, oso dantzari ona zen eta bere pausoak gaur egun jende askok eta askok egiten dute. Bera hil egon arren, oraindik jendea asko maite du eta inoiz ez dute ahaztuko artista on bat izan dalako eta jendea asko maite duelako.

2011ko uztailaren 7a
Alkatea
Padres Paulinos Kalea
Bizkaia 48860

Alkate jauna,

Gutun honen bitartez eskaera bat egin nahi dizugu.

Duela pare bat aste ONG-ko informazio unigarrria jaso genuen. Bertan, dirua beharrezkoa zutela adierazten zuen. Honegatik, ideia bat bururatu zitzaigun. Zure baimenarekin, musika jaialdi bat antolatzea eta jasotzen den dirua ONG honi eman.

Hau egin ahal izateko, eszenatokia eta pare bat txozna beharko genituzke. Musikariak herriko gazte batzuk izango ziren, hauek ondo jotzen baitute eta ez zutelako dirurik jasoko. Aproposena gazte egunean egitea izango zen, jasoko ditugun irabaziak handiak izango direlako.

Musika jaialdian irabazten den guztia ez da, nozki, ONG-ra joango. Lehendabizi eszenatokiak eta txoznak ordainduko dira, eta jaialdian joko duten musikariei opari bat emango zaie.

Jaialdian gainera, ONG-ko errepresentantea etorriko da han aurkezteko, honela, inor interesatuta egonez gero sozioa egin ahal izango da.

5 talde desberdin joko dute, guztiak ezagunak herrian, eta goizean eskoletako gazte batzuk pailasoz mozoratu eta txikientzat aktuatuko dute (gazte eguneko programan baitago). Guzti honengatik espero den emaitza oso ona izango dela uste da.



ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN

Beste barik gure proposamena kontuan izango duzulakoan eta aurretik eskerrak emanez agurtzen zaitugu

1-2'5 puntu: (2-5)

- ✓ Testua ulergaitza egiten duten akatsak ditu.
- ✓ Egitura sinpleak erabiltzen dituen arren, hauetan ere akatsak egiten ditu.
- ✓ Ulergarritasuna oztopatzen duten akatsak ditu tarteka.
- ✓ Ortografian, arruntak diren hitzetan oinarritzko akats larri batzuk egiten ditu, baina ez sistematikoak.

Musika eta gizartea

Gaur egun musika garrantzia handia dauka, baina hau ez da berria iraganan musika jendea mugitzen zuen, baina bakarrik batzuk entzun ahal zuten, normalean dirudun jendea.

Musika daukan arrakasta arrazoi askotik da, adibidez, garraio publikoan joaten zarenean, aspertzen zara, horregatik musika entzuten duzu, mugikorrarekin, mp-3, lpod... eta horrela entretenitzen zara, edo egun txarra izan baduzu musika alai ipini eta hobeto sentituko zara, musikak orokorrean gure alaitasuna edo gure zoritzarra adierazten du, eta gainera gure izaeraz asko ezaten du.

Denboran zehar musika motak asko aldatu dira eta mota berriak sortu dira, Adibidez, ehun urte atzera joaten bagara musika hori ez dauka zerikusirik gaur egunkoarekin.

Espanian sortu dira beste musika mota, reggetoia adibide bat da.

Musikan mubimendu asko eragiten dute, moda, literatura eta pentzatuko duzue, literatura? bai, zerikusirik asko daukate; literatura normalean (mota asko daudelako) nola den momentuaren biziduna adierazten du, ea demokrazian, diktaduran eta abar gauden hala ez, Gizakion pentsakerak ere adierazten ditu, eta gauza horiek arremak handi-handia daukate, literatura eta musika biak expresioi formak dira eta horregatik historiako parte inportantea eta garrantzizua da.

Beste arremak daukate, esatebaterako, biak diru asko mugitzen dute urtero, musika disko eta kontzertuekin eta literatura liburuak argitaratzen, baina azken urtean teknologiarekin ez da beharrezkoa diskoak edo liburuak erosi saretik jaitzi ahal dituzu.

Amaitzeko aholku bat: irakurri eta entzun musika egunero

Bilbon, 2010eko Ekainaren 10an

Jaun hori:

Ni xxxx naiz eta musikaria naiz. Pasaden astean Interneten sartu nintzenean ikusi nuen edonork nire abesti berrienak jaitz ditzakeela ordaindu barik. Momentu hontan, oso kezkatuta geratu nintzen pentsatu nuelako nire karrera profesionala amaituko zezakeela, ez zait gustatzen lan egitea dohainik.

Nahiz eta gustatzen zaidan jendeak entzuten nauela gustatuko litzaidake legearen bidez izango zela. Horregatik, zure laguntza eskatzen dizut zeren eta uste dut arazo honetan neurri gogorrak ipiniko behar direla. Hala ere, ez dut nahi jendeak entzuteari usten nauela neurriengatik. Orduan, ez dakidanez zer egin dezaket zure aholku edo emaitza entzutea gustatuko litzaidake.

Nire ustez, ulertzen dut diskoak garestiegiak direla baina beste lagun musikarien iritsia Internetetik musika jaiste behar dela da baina, nik uste dut zure taldeak



ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN

(SGAE) ipin dezake lege bat esaten ordaindu behar dela Internetetik kultura jaisteagatik. Zer iruditzen zaizu? Zure erantzuna gogoz espero dut.

0-1 puntu: (0-2)

- ✓ Testua ulergaitza egiten duten akats sistematikoak ditu.
- ✓ Egitura sinpleak erabiltzen dituen arren, hauetan ere akats nabarmenak egiten ditu.
- ✓ Nabarmen geratzen dira komunikazio eta hizkuntzari buruzko gabeziak.
- ✓ Nabarmena da eskatutako hitz kopurura ez dela iritsi.
- ✓ Oinarrizko akats gramatikal larri ugari egiten ditu (ergatiboa, komunztadura, konpletiboak...).

Kaixo jaun andreok gutun hau idatzi dizuet kontzertu benefikoa egiteko zure ONG laguntzeko. Nire ustez BEC hona da egiteko leku andia delako. Kontzertu horretan musika desberdin mota entzungo da. Beraz rock izarra adibidez ACDC, KISS edo beste batzuek, hip-hop izarrak Eminem eta SOcent, erebai Euskal Herriko abeslaria gure folklore eta gure musika munduan entzuteko. Baina hori ez da garestia beraz zure laguntza behar dut, uzte dut diru asko irabaziko dugu beraz ez kezkatu. Dirua irabaziko dugun Afrikara eramango ditugu Malaria zaintzeko eta ikastolak egiteko gainera dirua geratuko badugu iturriak egingo dugu bere herrian ura ez faltatzeko. Espero dut Aste Nagusian izango dela, gazte asko etortzen delako, ere bai ekarriko ahal dugu talde zahar bat gazteak ez direlako

*Barakaldon, 2010ko ekainaren 11an
Egileen elkarteko zuzendariac/Gran Via 56, nº 7
Bilbon*

Kaixo, zuzendaria!

Gutun hau idatzi dut arazo bat daukadalako.

Ni beti musikaria izan naiz; baina orain erabaki dut nire lana handitzen. Nire abestiak ospetsuak izan nahi dut. Horretarako; zurekin hitz egin behar dut.

Niri txikitan musikako mundua gustatu zait. Hasieran, dutxan abesten hasi nuen; gero nire familiarekin eta gero, nire abestiak idazten hasi nuen.

Nik ez daukat ospetsurik; baina gustatuko nuke nire abestiak ospetsua daukate.

Zergatik? Deno, guztiek hona, nire musika entzungo ahal izango lukete.

Horregatik, nire abestiek jaitsi behar dute. Munduko jendea nire musika entzun behar dute, ona delako.

Nik badakit SGAE hori egin ahal dute. Nire musika entzun behar zenuke eta gero nirekin hitz egiten duzu. Nik dakidalako, zuri gustatuko zaizu. Ez naiz munduko musikalarik onena baina nire musika ez da txarra.

Nire abesti guztiak saretik jaitsi ahal badira; jende gehiago entzun ahal izango du.

Gaur egun, guztiak Internet daukate, horregatik guztiek ni entzun ahal naute.

Nik badakit musikako mundua oso zaila da baina nire musika pena merezi du.

Gero arte, Egileen Elkarteko zuzendaria.

EUSKARA ETA LITERATURA II

OHIKO DEIALDIA (2023)

AZTERKETA ZUZENTZEKO TXANTILLOIA

A ATALA

A.1.1. ULERMENA (2 puntu)

Erantzun egokiak:

1. b)
2. d)
3. b)
4. d)
5. c)

GAIA ETA IDEIAK

A.2.1. eta A.2.2

GAIA (Aukeratu egokiena. 0.5 puntu)

Erantzun egokia: d)

B ATALA - HIZKUNTZAREN ETA LITERATURAREN INGURUAN (1 puntu)

B.1. AZPIATALA: Aurkitu itzazu testuan definizio hauei dagozkien hitzak:

- a) atzendu
- b) hurkoa
- c) atxikimendua
- d) gaindosia
- e) orobat

Oharra: onartzeakoak izango dira bai lema soila bai hitza deklinatuta ematen duten erantzunak.